

HILAREN AZKENEKO ASTEAZKENETAN, ISILUNE BAT EGITEN DUGU ELKARREKIN, SUFRITZEN DUTENEKIN BAT EGITEKO ETA INJUSTIZIA EGOERAK SALATZEKO ASMOTAN.

HILEKO AZKEN ASTEAZKENETAN EGITEN DUGUN MODUAN, Isiltasun Zirkulua egingo dugu, baina **oraingo honetan birtuala izango da**, osasun larrialdi egoera baten ondorioz konfinatuta baikaude.

Orain, inoiz baino elkartuago, gure ahotsa entzunarazi nahi dugu, osasun larrialdi egoera honetan migratzaile eta errefuxiatuek bizi duten egoera salatzeke.

Krisi honek agerian utzi du, beste behin ere, egiturazko arazoak ditugula. Bereziki, **zainketen egoera prekarizatuari** dagokionez. Emakume zaintzaileen egoerari erreparatu nahi diogu, gehienak migratzaileak baitira, baita supermerkatu eta egoitzetako langileen egoerari ere, une zail hauetan bizitzari eutsi ahal izateko gogor lan egiten ari baitira.

Egoera administratibo irregularrean edota Atzerritarrentzako Zentroetan dauden migratzaileak ere ez ditugu ahaztu, Melillan eta mugako beste hirietan daudenak, eta pobrezia egoeran edo arriskuan; izan ere, horiek dira larrialdi egoera honetan babesgabeenak.

Ezohiko egoera hau gainditzeko ahalegin handia egin beharko dugu, baina konponbidea izango du. Hala ere, **bidean inor geratu ez dadin ere konponbide sozial eta ekonomikoa bilatu beharko dugu.**

Konponbide ekonomikoa bilatzeaz eta babesgabeenei laguntza emateaz gain, gure esku dago orain elkar laguntzea; auzokideen artean sareak ehuntzea, elkarri entzutea, babesa eta animoa ematea... maila guztietan behar dugun zaintza hori.

Oraingo honetan, gure proposamena zera da: Isiltasunaren Zirkuluen bidez itxaropena bizirik mantentzea, komunitatean konfiantza izatea, eta krisi hau pasatuko dela gogoraraztea; berriro ere elkartuko garela, elkarrekin borrokan jarraituko dugula pertsona guztien duintasunaren alde, bereziki migratzaile eta errefuxiatuen alde.

Animatu eta partekatu esaldi, keinu edo irudi bat asteazken honetan, martxoak 25. Sare sozialen bidez egin dezakezu, #IsiltasunZirkuluak etiketarekin. Horrela, elkartasunak batzen gaituela sentituko dugu.

Mila esker parte hartu duzuen guztioi, zuen konpromiso eta presentziagatik. Harremanetan gongo gara gure hurrengo Zirkulurako, apirilean.